



ESTATUTUAK GMF

2007KO EKAINAK 6



ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

Aurrekariak	05
--------------------------	----

I. Titulua: Xedapen Orokorrak

1. Artikulua.- Izendapena	05
2. Artikulua.- Legezko Xedapenak	05
3. Artikulua.- Egoitza soziala.....	05
4. Artikulua.- Iraupena eta Lurralde Eremua	05
5. Artikulua.- Helburua	05
6. Artikulua.- Xedeak	05
7. Artikulua.- Elkarlana	06
8. Artikulua.- Federatuak.....	06
9. Artikulua.- Jarduerak	06
10. Artikulua.- Gizarte helburuarekin bat datozen jarduerak	06

II. Titulua: Gobernu, Administrazio eta Ordezkaritza Organoak

11. Artikulua.- Gobernu Organoak	07
--	----

I. Kapitula. Batzar Nagusia

12. Artikulua.- Batzar Nagusia	07
13. Artikulua.- Hautaketa.....	07
14. Artikulua.- Eraketa	07
15. Artikulua.- Ordezkaritza	07
16. Artikulua.- Ordezkapen Baldintzak	08
17. Artikulua.- Batzar Nagusi motak	08
18. Artikulua.- Deialdiak	08
19. Artikulua.- Gai Zerrenda	09
20. Artikulua.- Baliotasuna	09
21. Artikulua.- Bozketak	09

II. Kapitula. Zuzendaritza Batzordea

22. Artikulua.- Definizioa	09
23. Artikulua.- Eraketa	09
24. Artikulua.- Hautaketa	09
25. Artikulua.- Bileretarako Deialdiak	10
26. Artikulua.- Bileren Baliotasuna	10
27. Artikulua.- Egitekoak.....	10
28. Artikulua.- Kargu-uztea	10
29. Artikulua.- Zentsura-mozioa	10
30. Artikulua.- Kargu-uzteagatik Hauteskunde Batzordera Deialdia.....	11
31. Artikulua.- Idazkaria	11
32. Artikulua.- Diruzaina	11



III. Kapitulumua. Lehendakaria

33. Artikulua.- Egitekoak	11
34. Artikulua.- Izendatzea	11

IV. Kapitulumua. Xedapen Orokorrak

35. Artikulua.- Funtzioen iraupena	11
36. Artikulua.- Akordioen Baliotasuna.....	12
37. Artikulua.- Kideen Baldintzak	12
38. Artikulua.- Aktak	12
39. Artikulua.- Batzordeak	12

III. Titulua: Kirol Estamentuak

40. Artikulua.- Eraketa	12
41. Artikulua.- Eskubideak.....	12
42. Artikulua.- Betebeharrak	12

I. Kapitulumua. Elkarte eta Kirol Taldeak

43. Artikulua.- Definizioa	13
44. Artikulua.- Betebeharrak	13
45. Artikulua.- GMFko kide egitea	13
46. Artikulua.- Baja	13

II. Kapitulumua. Mendizaleak

47. Artikulua.- Eraketa	13
48. Artikulua.- Baldintzak	13
49. Artikulua.- Federazio Lizentziaren igorpena.....	13
50. Artikulua.- Medikatu azterketa	14

III. Kapitulumua. Teknikari eta Epaileak

51. Artikulua.- Eraketa	14
-------------------------------	----

IV. Titulua: Diziplina-araubidea

52. Artikulua.- Diziplina Batzordea	14
53. Artikulua.- Ezarpen eremua.....	14
54. Artikulua.- Diziplinako Ahalmena	14
55. Artikulua.- Arau-hauste motak eta tipifikazioak,	14
56. Artikulua.- Arau-hauste oso larriak	15
57. Artikulua.- Arau-hauste larriak	15
58. Artikulua.- Arau-hauste arinak	16
59. Artikulua.- Isunak	16
60. Artikulua.- Arduraren zirkunstantzia aldatzaileak	17
61. Artikulua.- Arduraren iraungitze zergatiak	17
62. Artikulua.- Arau-hauste eta zigorren preskripzioa.....	17



63. Artikulua.- Diziplina prozedurak	17
64. Artikulua.- Diziplina eta Zigor arduren konkurrentzia	17
65. Artikulua.- Diziplina eta Administrazio arduren konkurrentzia.....	17
66. Artikulua.- Diziplina-prozedura.....	18
67. Artikulua.- Zehapen erregistroa.....	18
68. Artikulua.- Diziplina Batzordearen jardute ahalmena	18

V. Titulua: Hauteskunde-legedia

69. Artikulua.- Araua.....	18
70. Artikulua.- Hauteskunde Batzordearen Eraketa	18
71. Artikulua.- Hautaketa	18
72. Artikulua.- Hauteskunde Prozesurako Deialdia eta Iraupena	18
73. Artikulua.- Egitekoak.....	18
74. Artikulua.- Hauteskunde-mahaia.....	19
75. Artikulua.- Hauteskunde-mahaiaren Funtzioak	19
76. Artikulua.- Bestelako Gaiak	19

VI. Titulua: Ekonomi eta Finantza legedia

77. Artikulua.- Ondarea.....	19
78. Artikulua.- Sarrerak.....	19
79. Artikulua.- Bestelakoak	19
80. Artikulua.- Aurrekontu Ekonomikoa	20
81. Artikulua.- Balantze Ekonomikoa.....	20
82. Artikulua.- Funtz-Erabilera.....	20
83. Artikulua.- Ikuskaritza.....	20

VII. Titulua: Dokumentazio Erregimena

84. Artikulua.- Dokumentazioa.....	20
------------------------------------	----

VIII. Titulua: Estatutuen Aldaketak

85. Artikulua.- Aldaketa	20
--------------------------------	----

IX. Titulua: Federazioaren desagertze eta Likidazioa

86. Artikulua.- Desagertzea.....	20
87. Artikulua.- Likidazioa	20

Xedapen Gehigarria.....	21
--------------------------------	-----------



AURREKARIAK

1924ko maiatzaren 18an Elgetan (Gipuzkoa), Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Mendi elkarteek bultzatuta, Eusko-Nafar Alpinismo Federazioa sortu zen.

1985. urtean, 276/1.984 kirol lege berriaren babesarekin, Gipuzkoako elkarteek, Gipuzkoako Mendizale Elkartearen sustatu zuten.

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. Izendapena

GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA (aurrerantzean GMF.) entitate pribatua da, herri onurakoa, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen, eta lankidetzaren erregimenean elkarteak, kirol taldeak eta mendizaletasuna praktikatzen duten kirolariak, teknikariak eta epaileak batzen dituen.

2. ARTIKULUA. Legezko Xedapenak

Gipuzkoako Mendizale Federazioak lege-arau hauek ditu gidari: 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena; 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua, Euskadiko kirol federazioarena; Legea garatzen duten gainerako xedapenak; estatutu hauek; berriaz prestatutako araudiak; eta bere organoek baliotasunez hartutako erabakiak.

3. ARTIKULUA. Egoitza Soziala

GMFk bere egoitza Donostian du, ANOETA ESTADIOA-KIROL ETXEA- Anoeta pasealekua, 5, -8. bulegoa; egoitza hori lekuz alda liteke Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.

4. ARTIKULUA. Iraupena eta Lurralde Eremua.

1. GMFren iraupena mugarik gabea da.
2. Lurralde eremua, Gipuzkoako Lurralde Historikora hedatu da.

5. ARTIKULUA. Helburua

Mendizaletasuneko jarduerak nahiz lehiaketa ofizialak eta Gipuzkoan eratzten edo finkatzen diren diziplinak bultzatu, kalifikatu, baimendu eta antolatzeko dago eratu GMF, Euskadiko Mendi Federazioaren berarenak diren eskuduntzak eta Gipuzkoatik kanpo egin litezkeen jarduerak kaltetu gabe.

6. ARTIKULUA. Xedeak

GMFk dituen helburuak betetzeko, ondorengo funtzioak burutuko ditu:

- a) Bere lurraldetasunean, mendizaletasunarekin zerikusia duten kirol jarduerak antolatu.
- b) Gipuzkoako lurralde historikoan, mendi kirol jarduerak eta lehiaketa ofizialak antolatu.
- c) Parte-hartze eta kompetentzi araudi propioak finkatu, baina erabili behar izatekotan, lurralde eremu handiagoko federazioek ebatzirikiko legeak ezartzeko aurreiritzirik izan gabe.
- d) Mendi kirolaren federazio lizentzia tramitatu, hauek Euskal Mendi Federazioak (aurrerantzean EMF) igorri ditzan, honek ezarritako baldintza eta prozedurarekin bat etorritik.
- e) Beren jardueratan sortu daitezkeen kirol gatazkek ezagutu eta irtenbidea aurkitu.
- f) Beren arauak betetzeaz arduratu eta diziplina ahalmena gauzatu, berau moldatuz.
- g) Debehatutako sustantzia farmakologiako zein kirolak arautu gabeko metodoen erabilerekin kontrol, prebentzio eta erreprezioan, hauei dagozkien zehaztu beharreko araudiari jarraiki, EMFrekin kolaboratu.
- h) Modalitate ezberdin bakoitzerako tekniko eta epaileen formazioan, Euskal Mendizale Federakundearekin kolaboratu.
- i) Baliabide ekonomiko propioen norakoa eta esleipena finkatu, beste entitate batzuk transferitutako helegitea, beren jardueraren garapenerako, kudeatu eta, beren baliabide guztien erabilera egokia egiaztatu.
- j) Federazioko kide diren klub, kirol elkarte eta kirolariei diru laguntzak eman eta zertarako erabiltzen diren kontrolatu.



- k) Euskal Herriko administrazioekin elkarlanean aritu hauek, kirol sustapenerako dituzten helburuetan, batez ere 14/1998 legeak zuzenki federazioei egozten dien lankidetzeta eta aholkatze funtzioetan.
- l) Bere Estatutu eta kirol araudia landu.
- m) Mendian ingurumena babestu eta hobetzeaz arduratu.
- n) Eta, oro har, mendizaletasuna sustatzeko eta hobetzeko egoki deritzona egingo du, eta kirol arloan eskumena duen foru erakundeak ematen dizkion administrazio lanak egingo ditu.

7. ARTIKULUA. Elkarlana

GMFk bere funtzioak EMFrekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko administrazioekin eta Euskal Autonomi Erkidegoarekin batera landu eta burutuko ditu.

8. ARTIKULUA. Federatuak

GMFren baitan ez da inor bere arraza, sexu, erlijio, iritzi, sinesmen edo beste edozein baldintza pertsonal zein sozialengatik baztertuko.

9. ARTIKULUA. Jarduerak.

Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinak, kirol modalitate eta diziplinei buruzkoak, jasotakoaren arabera, ondokoak hartzen ditu bere baitan mendizaletasunak:

1.-

- a) Alpinismoa
- b) Orientazioa
- c) Zeharkaldietako edo mendiko eskia
- d) Mendiko lasterketak
- e) Haitz eskalada
- f) Kirol eskalada
- g) Senderismoa.
- h) Ibilaldiak
- i) Arroilen jaitsierak
- j) Espeleologia

2.- 1. puntuan zerrendatutako diziplinak ondoko jardueretan gauzatuko dira, besteak beste:

- a) Goi, ertain zein mendi baxuetan eta modalitate edo konbinazio guztietan (kirol arloan, turistikoan, ingurugiro natural, kultural eta zientifikoan), txango eta zeharkaldiak.
- b) Instalazio komertzialetatik kanpoko, helburu alpinistiko edo mendizale helburudun kanpaldiak.
- c) Amildegia, kanoi-ganga eta haitzarteetan eta modalitate edo konbinazio guztietan (kirol arloan, turistikoan, ingurugiro natural, kultural eta zientifikoan), jaitsiera, txango eta ibilaldiak.
- d) Alpinismoa modalitate edo konbinazio guztietan (eskiekin, goi mendia urtaro guztietan, espedizioak, "trekking"-ak, etab.)
- e) Eski estazio komertzialetatik kanpoko mendi edo zeharkaldi eskia.
- f) Elur erraketekin zeharkaldi edo ibilaldiak.
- g) Mendi -ibilaldiak (arau internazionalekin bat datozen homologatutako ibilbideak, bere edozein tipologiatan); ibilbide edo bidezidorren zabalkunde, mantenu, exekuzio eta proiektuak burutzeko beharrezko diren jarduerak barne hartuz.
- h) Eskalada, modalitate eta konbinazio guztietan (harkaitz-eskalada, izotz-eskalada, kirol-eskalada, hiri-eskalada, etab.)
- i) Mendizale eta alpinistek erabili ohi dituzten material eta teknikak eskatzen dituzten eskalada frogak, modalitate ezberdinetan (lehiaketetan, aire librean eta instalazio itxietan), lehiaketazko mendi eski frogak, mendi lasterketa frogak, elur erraketa frogak, lehiaketazko mendi snow frogak, mendian ibilaldi neurtuak eta edozein zirkuitu edo zeharkaldietako frogak.
- j) Mendi zein eskalada kirolekin zerikusia duten kirol ikuskizunak.
- k) Mendi Orientazioa.
- l) Espeleologia.
- m) Modalitate desberdinetako orientazio lasterketak (orientazioa oinez, orientazioa mendiko bizikletan, orientazio maratoniak, Raids abentura askotarikoak eta mapa nahiz iparrorratza erabilita balizak bilatzean oinarritzen den beste edozein kirol modalitate).

10. ARTIKULUA. Gizarte helburuarekin bat datozen jarduerak.



Mendi kirolaren antzeko jarduera gisa hartuko dira, kultural eta zibikoki konplimentatuko direnak. Esakune gisa ondorengoak batuko dira:

- a) Mendi kirolarekin zerikusia duten eta mediku aspektuei erreferentzia egiten dien jarduera, lan, ikasketa eta ikerketak.
- b) Inguru naturalaren defentsa zein babeserako eta, lurra, fauna, flora eta ondare natural, paisajistako zein arkitektonikora zuzenduriko jarduera eta lanak.
- c) Mendi kirolaren aspektu zientifiko eta humanistikoekin erlazionatutako ikasketa, lan, erakusketa, proiektzio, kongresu, jardunaldi lehiaketa eta ikastaroak.
- d) Mendi kirolaren informazio hoberako zein garapenerako liburu, mapa, gida, monografia eta aldizkariak egin eta argitaratu.
- e) “Kirol turismo”aren garapenerako jarduera eta lanak, oinezko edo ibilbide turismoaren ikerketa eta plangintzekin.

II. TITULUA: **GOBERNU, ADMINISTRAZIO** **ETA ERREPRESENTAZIO ORGANOAK**

11. ARTIKULUA. Gobernu Organoak

GMFn ondorengo gobernu, administrazio eta ordezkari organoak egongo dira:

- a) Batzar Nagusia deituriko gobernu organoa.
- b) Zuzendaritza Batzordea deituriko kide anitzeko administrazio organoa.
- c) Titularra GMFko lehendakaria izango duen ordezkari organoa.

I. KAPITULUA **BATZAR NAGUSIA**

12. ARTIKULUA. Batzar Nagusia

Batzar Nagusia, elkartearen zein kirol taldeen, mendizaleen, teknikarien eta epaileen estamentuek, euren kompetentziakoak diren gaiak eztabaidatu eta akordioak hartzeko eraturiko organo soziala da eta, gutxienez, ondorengo funtzioak betetzeko aukera izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordea eta lehendakaria hautatzea.
- b) GMFko kontu eta aurrekontuak onartu.
- c) Estatutuak aldatu eta GMFren desagertzea erabaki.
- d) Zuzendaritza Batzordearen gaitzespen mozioa onartu.
- e) GMFko jardueren egitarau ofiziala onartu.
- f) GMFko jarduera plana onartu.
- g) GMFko arauak onartu.
- h) Estatutuon VI. Izenburuan ezarritakoaren arabera, ondasun higiezinak eskura eduki, besterendu eta grabatu, diru laguntzak itundu eta zor tituluak edo ondare kuota parteak igorri.
- i) Estatutu hauen arabera beste estamentu bati ez dagozkion beste edozein egiteko.

13. ARTIKULUA. Hautaketa

Batzar Nagusia, lau urtetik behin eta estamentuotan ezarritakoarekin bat etorritik, boto eskubidea duten GMFko estamentu kideek libreki, zuzenean, berdintasunez eta isilpekoa izango den boto bitartez, aukeratuko dute.

Dena den, hauteskundeok, udan burutzen diren joko olinpikoen ospakizunen urte beretan gauzatuko dira.

14. ARTIKULUA. Eraketa

1. GMFko Batzar Nagusia, 15. artikuluan adierazten diren GMFko Estamentuen ordezkariak osatzen dute.
2. Berau osatzen duten ordezkarien kopurua ezingo da 200 kide baino gehiagokoa izan.

15. ARTIKULUA. Ordezkarietza

Batzar Nagusia, Elkarteetako zein Kirol Taldeetako Estamentuetako ordezkariak, Mendizaleen ordezkariak eta Teknikari zein Epaileen ordezkariak, ondoren agertzen den proportzioetan banatuta, osatuko dute.



- a) Batzar Nagusiaren partaidetza osoa finkatuko duen, biltzarkideen %80a, Elkartetako zein Kirol Taldeetako Estamentuetako ordezkariak osatuko dute.
- b) Kideen %10a, Mendizaleen Estamentuak osatuko du.
- c) Kideen % beste 10eko ordezkariak, Teknikari zein Epaileen ordezkariak izango dute.

16. ARTIKULUA. Ordezkapen baldintzak

1. Elkarte eta kirol taldeek, Biltzarrean ordezkariak izan dezaten, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte.
 - a) Kirol Elkarte eta Federazioen erregistroan izen-emanan egon.
 - b) GMFri atxikita egon.
 - c) Gutxienez 15 federatu izan.
 - d) Asken 12 hilabeteetan mendi jardueraren bat burutu izana.
2. Aurreko puntuan jasotako baldintzak betetzen dituzten klub eta kirol elkarteek boto-haztapen hau izango dute Batzar Nagusian:
 - 15 federatu baino gutxiagorekin, 0 boto.
 - 15 eta 80 federatu artean, boto 1
 - 81 eta 200 federatu artean, 2 boto
 - 201 eta 400 federatu artean, 3 boto
 - 401 eta 650 federatu artean, 4 boto
 - 651 eta 1000 federatu artean, 5 boto
 - 1001 eta 1375 federatu artean, 6 boto
 - 1376 eta 1800 federatu artean, 7 boto
 - 1801 eta 2400 federatu artean, 8 boto
3. Batzar Nagusian mendizaleen ordezkari izango direnak hauteskundeak egiten direnean eta aurreko urtean lizentzia indarrean izan, eta hamazortzi urte beteak eduki beharko dute hauteskunde urtean, Gainera, federazioaren lizentzia eduki beharko dute batzarkide diren bitartean.
Ordezkariek, aurrez aipatutako baldintzak betetzen duten eta hamasei urte baino gehiago dauzkaten mendizaleek hautatuko dituzte.
4. Batzar Nagusian teknikari eta epaileen ordezkari izango direnak (bata naiz bestea izan bere maila), hautatzeko edo hautatuak izateko federazioaren lizentzia indarrean eduki beharko da hauteskundeak egiten diren urtean eta aurrekoan. Gainera, federazioaren lizentzia eduki beharko dute batzarkide diren bitartean.
5. Aukeratuak izan diren denbora tarterako Batzar Nagusiko kideen artean bajaren bat suertatuz, hauen ordezkariak, Estamentu bakoitzeko asken Batzar Nagusirako hauteskundeetan ordezkariak listatan lehenengo geratutakoek beteko dute, hauteskunde arautegiak honetarako ezarritako prozedurarekin bat etorriz.

17. ARTIKULUA. Batzar Nagusi motak.

1. Batzar Nagusia, ohiko bilkura zein bilkura berezietan batuko da.
2. Batzar Nagusia ohiko bilkuratan kontu eta aurrekontuen egoera, jarduera plana, jardueren egitarau ofiziala zein bere beste eskumen gaiak (ondorengo paragrafoan aipatzen direnak izan ezik) onartzeko, gutxienez urtean behin eta lehenengo seihilekoaren barruan, batuko da.
3. Batzar Nagusia ezohiko bilkuran ondorengo gaiak jorratzeko batuko da:
 - a) Zuzendaritza Batzordeko hauteskundeak.
 - b) Zuzendaritza Batzordeari zentsura mozioa.
 - c) Estatutu aldaketak.
 - d) Federazioaren araudiak onartu eta aldatu
 - d) GMF desagertzea.

18. ARTIKULUA. Deialdiak

1. Ohiko Batzar Nagusirako deialdia egitea berez, Federazioko lehendakariari dagokio, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiko %5ak hala eskatuta.
Hau ez balitz posible izango edo eta lehendakariak ez balu bere betebeharra burutuko, Biltzarrak, Zuzendaritza Batzordeak zein biltzarkideen arteko %5 ordezkariak duen talde batek, deialdia luzatu dezake.



2. Ezohiko Batzar Nagusiak deitzea GMFko lehendakariari dagokio, Zuzendaritza Batzordeak hala eskatu diolako edo Batzar Nagusiko kideen % 5ak hala eskatu duelako.

Hori posible izango ez balitz edo lehendakariak batzarra deitzeko obligazioa beteko ez balu, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiko kideen % 5ak batzarra deitu ahal izango dute.

3. Zuzendariak Biltzarrerako deialdia, asko jota, honetarako eskubidea duten organo edo erakundeen eskaera jaso ondorengo, 15 egunen buruan bete beharko du.

4. Ohiko bilkura zein bilkura bereziko Batzar Nagusirako deialdia eta eguneratutako datuak, Biltzarkideei gutxienez 15 eguneko aurrerapenez, bidaliko zaie.

19. ARTIKULUA. Gai Zerrenda

1. Biltzarkideek lehendakariari, jakinarazpena burutu ondorengo 8 egunetako epean, interesgarri deritzen gaiak, gai-zerrendan sartzeari eskatu diezaiokete. Eskaerok, gutxienez biltzarkideen %5ak luzatuz gero, gai-zerrendan sartuko dira.

2. Gairen bat Gai-zerrendan ez sartzearen arrazoiak, eskaera luzatu duenari argitu beharko zaizkio.

20. ARTIKULUA. Baliotasuna

1. Batzar Nagusia, lehen deialdian, biltzarkideen erdiak gehi pertsona bat gehiagok parte hartzen duenean, balioski eratuta geratuko da. Bigarren deialdian ostera, nahikoa izango da biltzarkideen edozein kopuru agertuta.

2. Batzar Nagusi barruan, ez da boto-ordezkatzerik onartuko.

21. ARTIKULUA. Bozketak

1. Biltzarkideen %5ak gutxienez hala eskatuz gero, Batzar Nagusian burutuko diren bozketak isilpekoak izango dira.

2. GMFko lehendakariak Batzar Nagusia, gai larriren batengatik soilik botako du atzera. Gertaeron arrazoiak eta deialdi berrirako eguna aktan jasoko ditu eta batzarrera gerturatutakoei jakinaraziko zaie.

II. KAPITULUA **ZUZENDARITZA BATZORDEA**

2. ARTIKULUA. Definizioa

Zuzendaritza Batzordea, GMFko administrazio organoa da eta, Batzar Nagusiko gidaritzaren arabera garatu beharreko GMFko gaien administrazio eta ekonomia kudeaketa funtzioak bete beharko ditu.

23. ARTIKULUA. Eraketa

1. Zuzendaritza Batzordea ondorengoek osatuko dute:

a) Lehendakaria; zein aldi berean GMFko lehendakari ere izango den.

b) Lehendakariordea; zeinek Lehendakariaren funtzioak beregain hartuko dituen hau egon ezean edo eta honek postua utziko balu.

c) Idazkaria.

d) Diruzaina.

e) Batzordekide kopuru bakoitia (hamaika kide izateraino), GMFren funtzionamendu eta garapenerako eratu nahi diren batzordeen ardura izango dutenak.

2. Zuzendaritza Batzordeko kide diren baina Batzar Nagusikoak ez diren guztiek, asken honetan parte hartu ahal izango dute eta ahots eskubidea izan arren ez dute botorik izango.

3. Urriak 9ko, 265/1.990 dekretuaren, 78. artikuluan jasotzen diren aurreikusitako kasuen arabera, Zuzendaritza Batzordeko partaide direnek ezingo dute beste karguren baten parte hartu ahal izango.

24. ARTIKULUA. Hautaketa

1. Zuzendaritza Batzordea, behin Batzar Nagusia berriztatuta eta lau urtean behin, batzarkideek emandako gehiengo botoen arabera, libreki, berdintasunez, zuzenean eta isilpeko botoz aukeratuko da. Honetarako, aukeratu beharreko lehendakariak burutuko duen zerrenda itxien bidez osatutako hautagaien, aurretiko aurkezpen eta onarpena egingo da.



2. Zuzendaritza Batzordeko kideak berriro aukeratu ahal izango dira, baina gehienez ere bi agintaldi jarrian edo zortzi urtez egongo dira, Zuzendaritza Batzordean izan dituzten ardura guztiak kontuan hartuta. Nolanahi ere, azken agintalditik zortzi urte edo bi agintaldi igarotzen direnean, berriro ere parte hartu ahal izango dute edozein hautaketa edo izendapen prozesutan.

25. ARTIKULUA. Bilerarako deialdiak

1. GMFko Lehendakariari dagokio eta, honek ezin badu Zuzendaritza Batzordeko %25ari, Zuzendaritza Batzorde bertarako deialdia burutzea.
2. Deialdiarekin batera, eguneko egitaraua, jorratuko diren gaiak eta hauei dagozkien agiriak bidaliko dira.
3. Asken orduko justifikatutako arazo larrien kasuan izan ezik, Zuzendaritzako kideak gutxienez bi eguneko aurrerapenaz jarriko dira jakinarene gainean.
4. Naiz eta aurrez deialdirik izan ez, kide guztiak parte hartu eta osotasunez hala erabakiz gero, eratua izango da.

26. ARTIKULUA. Bileren baliotasuna

1. Zuzendaritza Batzordea balioski eratua geratuko da, lehen deialdira kideen erdiak gehi bat gehiago agertuko direnean eta, bigarren deialdira gutxienez kideen %25a agertuko direnean; eta beti ere, GMFko Lehendakaria edo Lehendakariordea ere agertuko direnean.
2. GMFko Lehendakaria edo, honek ezinean Lehendakariordea, Zuzendaritza Batzordeko mahai-buru izango da eta jardunaldiok zuzendu eta koordinatuko ditu.

27. ARTIKULUA. Egitekoak

Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak dira ondokoak:

- a) Klubuen alden eta bajen berri jakin, eta Batzar Nagusiari jakinarazi hala dagokionean.
- b) GMFren menpe dauden batzorde eta erakundeen akordioak ezagutu- eta onartu edo atzera bota, hala dagokionean-, Batzar Nagusiarenak eta Kirol Diziplina Batzordearenak izan ezik.
- c) GMFren diru baliabideak administratu. Horretarako, diruzaintza kredituak eskatu ahal izango ditu, batzarkideen 2/3en baimenarekin (16/2006 Dekretuaren 138 artikulua, 1. puntua, b atala), Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzen aurrerakin gisa, eta urtebete baino gutxiagoko iraupenarekin.
- d) Batzar Nagusian hartutako erabakiak aurrera eramane eta betetzen direla ziurtatu.
- e) Diziplina-araubidea arduratzen den isunen aurrera eramatea.
- f) GMFari dagozkion gaien kudeaketa eta zuzendaritzan, lehendakariaren alde agertu.
- g) Batzar Nagusiari, bere ezagutzarako, dagozkion gaiak aurkeztu.
- h) Batzar Nagusiaren gai zerrenda landu eta finkatu.
- i) Batzar Nagusiari espresuki ez dagozkion gaitasun guztiak burutu.

28. ARTIKULUA. Kargu-uztea

1. Zuzendaritza Batzordeak zein Lehendakariak, ondorengo gaiengatik utziko dute beren postua:
 - a) Kideen %50a baino gehiagoren dimisio edo heriotzagatik.
 - b) Ondorengo artikuluan aurreikusitako zentsura-mozioaren onarpenagatik.
 - c) Kideen %50a baino gehiagoren ezintasun edo gaitasun ezagatik.
 - d) Estatutuan aurreikusitako beste arrazoiengatik.
2. Zuzendaritza Batzordeko kideek, aurreko puntuko a), c) eta d) ataletan aipaturiko arrazoi berengatik, indibidualki utziko dute kargua.
3. Zuzendaritza Batzordeko kideetatik batek edo gehiagok utzi ezker, Zuzendaritza Batzordeak berak ordezkioak izendatu ahalko ditu; hauek ospatuko den lehen Batzar Nagusian berretsi beharko direlarik.

29. ARTIKULUA. Zentsura-mozioa

1. Batzar Nagusiak Lehendakariaren edo Zuzendaritza Batzordearen erantzukizuna eska dezake zentsura mozio baten bitartez, baina mozio hori bertaratu diren Batzar Nagusiko kideen gehiengo osoak babestu beharko du, berriaz deitutako batzarraldi batean.
2. Zentsura mozioa onartzeak berarekin ekarriko du Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek beren karguak uztea.
3. Zentsura mozioa idatziz aurkeztuko zaio lehendakariari, eta hark ezohiko batzar nagusia deitu beharko du, hamabost eguneko epean, idatzi jasotzen duenetik kontaktzen hasita. Batzarrean gai hori izango da aztergai bakarra.. Deialdia egiten denetik batzarra egin bitartean ez dira hogeita hamar egun baino gehiago igaroko.



30. ARTIKULUA. Kargu-uzteagatik Hauteskunde Batzordera Deialdia

1. Zuzendaritza Batzordeak kargua uztean, gehienez hilabeteko epe barruan Hauteskunde Batzordea deituko du honela, hauteskunde prozesuari hasera eman diezaion.
2. Hau posible izan ezean, GMFko Batzar Nagusiko kide den edozein erakundetako, beronen ordezkariak osatzen dutenen gutxienez %5ak, Hauteskunde Batzordea deitu ahal izango du.

31. ARTIKULUA. Idazkaria

1. Zuzendaritza Batzordeko Idazkaria, GMFko bera izango da eta gutxienez bere gain, ondorengo funtzioak izango ditu:

- a) GMFko Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak izaten dituzten bileretako akta jaso.
- b) Akta liburuaren eta kirol Estamentuen zaintza.
- c) Aipaturiko liburuetako edukiei buruzko ziurtagiriak egin.

2. Idazkariaren lana ordaindua izan daiteke; kasu honetan kontuan hartuta, GMFko lanean dihardutenetarikoa litzatekeela eta ondorioz, Langileriaren Estatutuek zein indarrean dagoen arau sozialek langileriari buruz diotena ezarriko litzaikeela.

Kasu honetan, Idazkariak zuzenean, Zuzendaritza Batzordeko kide izateari utzi eta organo teknikari izatera pasako litzateke; honegatik, bere hitza kontuan hartuz baina bozketarako eskubiderik gabe, ordezkariak eta gobernu organoen bileretan parte hartuko duen.

32. ARTIKULUA. Diruzaina

GMFko diruzainak, gutxienez bere gain, ondorengo funtzioak izango ditu:

- a) GMFko orden ekonomiko kontu eta ariketak zuzendu.
- b) GMFko kontabilitate liburuak begiratu eta zaindu.
- c) Beharrezko kontabilitate agiri guztiak prestatu, batez ere, urteko aurrekontuen zirriborroa eta ariketa bakoitzaren balantzea, ondoren Batzar Nagusiak onartu dezan.

III. KAPITULUA **LEHENDAKARIA**

33. ARTIKULUA. Egitekoak

GMFko lehendakariak haren legezko ordezkariak hartzen du bere gain eta Batzar Nagusiak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartuta erabakiak bete beharko ditu. Halaber, bataren eta bestearen batzarretan buru izango da, eta berdinketa kasuetan kalitatezko botoa erabili ahal izango du.

GMFko lehendakari hautatzeko beharrezkoa izango da lizentzia indarrean edukitzea.

34. ARTIKULUA. Izendatzea

1. Federazioko Lehendakaria bera, izango da aukeratua suertatu de hautagai-zerrenda burutu duena.
2. Lehendakariak postua utziko balu, Lehendakariordeak ordezkatu luke. Hau posible ez balitz, Zuzendaritza Batzordeak, bere kideen artean lehendakari berri bat aukeratu luke. Aukeraketa hau, Batzar Nagusiak, beronek deitutako lehenengo bileran berretsi beharko du.
3. Lehendakaria berriro aukeratu ahal izango dira, baina gehienez ere bi agintaldi jarrian edo zortzi urtez egongo da agintean. Nolanahi ere, azken agintalditik zortzi urte edo bi agintaldi igarotzen direnean, berriro ere parte hartu ahal izango du edozein hautaketa edo izendapen prozesutan. Beste hautagairik egongo ez balitz eta Estatutu hauek jasotako agintaldi muga agortuta edukiko balu, ardura uztera doan lehendakariak berriro aurkezteko eskubidea izango luke.

IV. KAPITULUA **XEDAPEN OROKORRAK**

35. ARTIKULUA. Funtzioen iraupena

Honako Estatutuko 9.Artikulan ageri diren organoetako kide guztiak, beren eginbeharrekin jarraituko dute euren ordezkari postua ordezkatu artean.



36. ARTIKULUA. Akordioen baliotasuna

GMFko kide anitzeko organoen akordio guztiak, bertan dauden kideen gehiengo soil bitartez hartuko dira, baldin eta ustezko legezko xedapen edo xedapen estatutarioek gehiengo kualifikatua aurreikusten duten.

37. ARTIKULUA. Kideen baldintzak

GMFren Batzar Nagusiko edo Zuzendaritza Batzordeko kide edo lehendakari izateko baldintza hauek bete behar dira:

- Kirol izaera duen diziplinazko zuzenarazte larriari lotua ez egotea.
- Kargu Publikoetan aritzeko gaitasunik gabe utzi dezakeen epai irmo bitartez ez zigortua izatea.
- Epai irmo erabaki bitartez, ezgaitzat joa ez izatea.
- GMFren jardun eremuko administrazio auzotasuna edukitzea. Egoera berezietan, Batzar Nagusiak salbuespenak egin ditzake.

38. ARTIKULUA. Aktak

- Idazkariak, federaturiko organoen artean hartutako erabaki guztiak aktan jasoko ditu; bertan, gutxienez, parte hartu dutenen izenak, bilera burutu den leku eta denbora egoeraren berri, eztabaida gai izandako puntu nagusiak, bozketa modu zein emaitzak eta, akordioen edukiak jasoko dira.
- Arrazoitutakoak diren hartutako erabakiaren kontrako botoak, kide anitzeko organoaren erabakietatik eratorritako arduetatik at geratuko dira.

39. ARTIKULUA. Batzordeak

- Dopaje gaietan aplikatzeko araudiak ezartzen dituen organoak eduki beharko ditu GMFk.
- GMFk batzorde tekniko bat edukiko du, Federazioaren zuzendaritza teknikoa eta kirol zuzendaritza beregain hartuko dituen.

III. TITULUA: KIROL ESTAMENTUAK

40. ARTIKULUA. Eraketa

- GMF, Mendizale, Teknikari eta Epailen Estamentuek osatzen dute; guztiak, dagozkien GMFren lizentzien titularrak eta GMFri atxiki dauden Elkarte eta Kirol Taldeak izaki..
- Federazio lizentziak, titularrari, GMFko zein EMFko kide integratu egoera emango dio; eta jarduera ofizialetan parte hartzeko prestatuko du, beti ere, jarduera bakoitzak eskatzen duen arauak kontuan izanik.

41. ARTIKULUA. Eskubideak

Estamentua osatzen dutenen eskubideak ondorengoak dira:

- GMFk eta EMFk antolatzen dituzten jarduera ezberdinetan parte hartzeko aukera.
- Federazio arauak bete daitezen eskatzeko, aginpidedun Federazio organoetara jotzeko aukera.
- Estatutuok eta araudi aplikagarriak ezartzen duenaren arabera, GMFko gobernu eta administrazio organoak ordezkaturak izan eta baita bertako parte hartzaile ere.
- GMFko jardueren informazioa jaso eta dagoen dokumentazioa aztertu.
- Mendi aterpetxe ofizialak lehentasunez erabili.
- Diru laguntza publiko zein pribatu posibleak jasotzeko aukera eta aurrera eramandako jarduerengatik onespenez ofiziala izan.

42. ARTIKULUA. Betebeharrak

Estamentuetako kideek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

- GMFren helburuen lorpenean aktiboki parte hartu.
- Deituak diren GMFko Batzar Nagusietan parte hartu eta Federazio organoek hartutako erabakiak bete.
- Bakoitzak daukan karguari dagozkion betebeharrak leialki bete.
- Ezarritako kuotak ordaindu.
- Federazio organoek behar bezala hartutako akordioak bete, non eta eskuduntza duen organoak baliogabetzen edo bertan behera uzten ez dituen.



- f) Kirol lehiaketetan parte hartzeko edo haietarako prestatzeko Gipuzkoako selekzioaren deialdietara joan.
- e) Ingurumena zaindu, babestu eta hobetu.
- f) Mendizaletasun etika errespetatuz jardun.

I. KAPITULUA **ELKARTE ETA KIROL TALDEAK**

43. ARTIKULUA. Definizioa

Klubak edo kirol elkarteak dira indarrean dauden kirol araudiak betez eratzen diren kirol elkarte guztiak, eta mendizaletasuneko edozein jardura sustatzea edo gauzatzea helburu dutenak. Kluba GMFko eta EMFko kide izango da, haien babesak jaso dezan. GMFn kide eginez gero automatikoki egiten da EMFko kide, denbora-muga jakinik gabe, betiere indarrean dauden araudiak eta estatutu hauek jarritako baldintzak betetzen badira.

44. ARTIKULUA. Betebeharrak

Elkarte eta Kirol Taldeen betebeharrak dira, 41. Artikuluan estamentu guztiak osatzen dituztenentzako ez gain, ondoren aipatzen direnak:

- a) Euren bazkideen artean, Mendi-kirol jardueren praktika erraztu.
- b) Euren lurralde-eremuko biztanleen artean, Mendi-kirol jardueren praktika sustatu eta hedatu.
- c) GMrekin elkarlanean, euren bazkideei federazio lizentziak bideratu.
- d) GMF, euren gobernu eta administrazio organoetako zein euren egoitza sozialen, aldaketez jakinaren gainean jarri eta, hala eskatzen zaienean, euren jardueri buruzko informazioa luzatu.
- e) Mendian, euren bazkideek segurtasun eta sorospen arauak bete ditzatela zaindu.

45. ARTIKULUA. GMFko kide egitea

Elkarte eta Kirol Taldeek, GMFko kide izan daitezen, ondorengoak bete beharko dituzte:

- a) Euskadiko Kirol Entitateen Erregistroan izena eman, mendizaletasunaren barruan.
- b) GMFri bere kidetza idatziz eskatu eta, honek eskatutako baldintzak bete.

46. ARTIKULUA. Baja

GMFren kide den Elkarte edo Kirol talderen batek, Federazioa ondorengo arrazoen arabera utzi ahal izango du:

- a) Elkarte edo Kirol taldeak beraiek, akordio bitartezko euren estatutuen arabera.
- b) Ezarritako zigor irmoagatik, estatutu hauen arabera, Kirol Diziplinako Araudiaren arabera, ekainaren 11ko 14/1998 Euskadiko Kirol Legearen arabera eta haren diziplina araudiaren arabera arau-hauste larria egin duelako.

II. KAPITULUA **MENDIZALEAK**

47. ARTIKULUA. Eraketa

Federazioaren lizentzia duen guztia, mendizale federatua izango da.

48. ARTIKULUA. Baldintzak

1. GMFko parte izateko eta osterantzean, bertako partaide gisa, honek zein EMFk, FEDMEk (Espainiako Mendi Federazioak) eta Nazioarteko Alpinismo Erakundeen Batasunak antolatzen dituzten kirol zein bestelako jardunaldi ofizialetan parte hartzeko, beharrezkoa da federazioaren lizentzia edukitzea.

2. Federazioaren Lizentzia, guztientzat bera izango da eta titularrari, GMFri bezala, EMFri ere atxikipena ekarriko dio.

49. ARTIKULUA. Federazio Lizentziaren igorpena



Federazioaren Lizentzia EMFk igorria izango da, aurrez, honek ezarritako prozedura eta baldintzei jarraiki, GMFk tramitatuko duelarik.

50. ARTIKULUA. Mediku azterketa

Mediku azterketa bat ezarriko da legez federazio lizentziaren erakoa. Azterketa hori nahitaezkoa izango da teknikari eta epaileentzat, proba ofizial batzuetan izena emateko, eta diru-laguntzak eskatzeko edo mendiko espedizioak ofizialki aitortzeko.

III. KAPITULUA **TEKNIKARI ETA EPAILEAK**

51. ARTIKULUA. Eraketa

1. Eskumena duten erakundeek igorritako titulua zein dagokien federazio lizentzia duten GGMEko irakasle, erakusle, begirale eta epaileak izango dira GMFko Teknikari.
2. Teknikariak, GGME taldekatuko dira, non Teknikari mota bakoitzeko sail bana egongo den.
3. GMFk onartutako araudi baten bitartez, Teknikari eta Epaile motak, hauen betebeharrak eta eurak izendatzeko beharrezko baldintzak zehaztuko dira.

IV. TITULUA: DIZIPLINA-ARAUBIDEA

52. ARTIKULUA. Diziiplina Batzordea

1. Diziiplina Batzordea da GMFn diziiplina gaietan erabakiak hartzeko ahalmena duen organoa, eta ez du gainerako organoekiko loturarik.
2. 1998ko ekainaren 11ko Euskadiko Kirolaren legeak lurralde federazioei ematen dizkien eskumenak baliatuko ditu GMFren Diziiplina Batzordeak; eta horrek indargabetzen dituen kasuetarako Urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua, Kirol Diziiplina arautzen duena, hartuko da kontuan.
3. Diziiplina Batzordea gehienez bost eta gutxienez hiru kidez osatua egongo da; hauek GMFko lehendakariak izendatuko dituelarik, Zuzendaritza Batzordeak hala proposatuta eta Batzar Nagusiak berretsiz.

53. ARTIKULUA. Ezarpen eremua.

1. Gipuzkoako Mendi Federazioko diziiplina-araubidea, jolas edo txapelketa arauak urratzera eta, ekainak 11ko 14/1998 Euskal Herriko Kirolaren Legean tipifikatutako arauen urratzera hedatu da; hauen erregelamenduzko xedapen eta GMFko estatutu edo araudietan.
2. Elkarrekin euren kideengan duten diziplinako ahalmena, euren arauen arabera zuzenduko da eta, GMFren zein Kirol Justiziaren Euskal Erakunde aurrean ezin izango da helegiterik jarri.
3. Estatu mailako Kirol txapelketatan burututako arau-hausteak, estatu mailako diziiplina arauen arabera zuzenduko dira.
4. Kirol diziiplina-araubideak ez du suposatuko ardura zibil, penal edo bestelakoetatik libre geratzea, atzenok bere arau propioen arabera zuzenduko dira.

54. ARTIKULUA. Diziplinako Ahalmena.

1. Kirol diziplinako ahalmena, organo jakin batzuei aztertu eta dagokien kasuetan, kirol diziiplina ezarri zaien pertsonak zigortzeko egozten zaien gaitasuna da.
2. Diziplinako ahalmena, federatutako pertsona fisiko zein juridikori ezartzea, GMFren dagokio.
3. Kirol modalitate bakoitzeko arau teknikoaren bitartez epailei egotzitako frogak edo topaketak zuzentzeko gaitasuna, ez dagokio kirol diziplinako ahalmenari.

55. ARTIKULUA. Arau-hauste motak eta tipifikazioa.

1. Arau hausteak oso larriak, larriak edo eta arinak izan daitezke.
2. Ondoko artikuluetan jasotakoa kaltetu gabe, eta 1998ko ekainaren 11ko Euskadiko Kirolaren legea 108.2 puntuan jasotzen duena betez, GMFk izaera oso larriko, larriko edo arineko arau urratze berriak tipifikatu eta ezarri ahal izango ditu.



56. ARTIKULUA. Arau-hauste oso larriak.

1. Ondorengoak, arau-hauste oso larri gisa hartuko dira:

- a) Dagozkien oinarri edo emateko erabakietan ezarri gabe dauden helburuetarako laguntza eta subentzioak erabiltzea.
- b) Laguntza eta subentzioak lortzeko, datu erreal eta eskatutako agiriak substantzialki aldatzea.
- c) Egozpen edo konpetentzien lege kontrako usurpazioa.
- d) Diziiplina edo hauteskunde organoetako kideek dituzten betebeharrak, oso larriki ez betetzea.
- e) Kirol-instalazioetako segurtasun eta higienari dagozkien federazio arauak ez betetzea, hauek erabiltzen dituzten pertsonentzako arrisku larria suposatzen dutenetan.
- f) GMFko arau estatutario zein erregelamendu-arau eta akordioak behin eta berriz, agerian ez betetzea.
- g) Arrisku segurtasun arauak betetzen ez dituzten kirol jarduerak antolatzea; jarduerok, hirugarren batzuegan arrisku oso larriak sortarazi ditzaketenetan.
- h) Epaile, kirolari, teknikari, kirol agintaritzak eta kirol jardueratan parte hartzen duten beste parte-hartzaileak eraso, larderiatu edo bortxatzea.
- i) Autoritate-abusuak.
- j) Topaketa, froga edo txapelketa baten ospakizuna galaraziko duen edo eta aldi baterako zein betiko suspenditzera behartuko duen, protesta edo jarduketa kolektiboa.
- k) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen erabakiak ez exekutitzea.
- l) Biolentzia bultzatzen duten, kirolari, teknikari, epaile eta zuzendarien adierazpen publiko eta ekintzak.
- m) Justifikatu gabeko zergatiengatik Federazio lizentziak ez igorri izana edo atzeratu izana; betiere intentzio txarrez denean.
- n) Kirol jarduerarako zuzendutako ondasun publikoen erabilera ezegoki aproposa.
- o) Debekatutako sustantzien sustapen, bultzatze zein kontsumoa edo, debekatutako metodoen erabilera eta, hauen beharrezko kontrola eragotziko duen edozein ekintza edo omisio.
- p) Jolas edo txapelketen emaitzak aurrez zehaztera bultzatuko duten edozein ekintza edo omisio.
- q) Arau-hauste larri edo oso larrien aurrean ezarritako zigorrak urratzea.
- r) Arau larriak behin eta berriz urratzea.
- s) GMFren izen onaren edo bertako kideen ohoragarritasunaren kontrako edozein ekintza edo adierazpen publiko.

2. Aipaturikoen gain, jarraian aipatuko direnak, federazio antolakuntzako zuzendariei dagozkien arau hauste oso larri gisa hartuko dira:

- a) Batzar Nagusiak hartutako zein hauteskunde araudiak ezarritako erabakiak eta gainerako xedapen estatutario edo erregelamenduzko xedapenak ez betetzea. Arau-hausteak behin eta berriz konstitutiboki hausteak, kirol antolakuntzarako erakundeen estatutu eta araudietan adierazitakoak izango dira edo, adierazi gabe egon arren, larriak diren edo garrantzi handia adierazten dutenak.
- b) GMFren Ohizko Batzar Nagusietara hiru aldiz jarraian arrazoirik gabe ez joatea.
- c) Epe eta baldintza legalpean, sistematikoki eta behin eta berriz, federatutako taldeko organoen deialdirik ez burutzeak.
- d) GMFren izen onaren kontrako edozein ekintza edo adierazpen publiko.

57. ARTIKULUA. Arau-hauste larriak.

Ondorengoak, arau-hauste larri gisa hartuko dira:

- a) Arau-hauste arinen aurrean ezarritako zigorra ez betetzea.
- b) Diziiplina edo hauteskunde organoetako kideen funtzioak alde batera utzi edo hauen jarduera ezagatik; beti ere, euren lanen ez betetzea oso larria ez denetan.
- c) GMFko selekzioen deialdietara arazoitu gabe ez agertzea.
- d) Justifikatu gabeko zergatiengatik Federazio lizentziak ez bideratu, ez igorri edo atzeratu izana.
- e) Kirol joko, froga edo txapelketen garapen normala aldatuko duten protestak.
- f) Epaile, teknikari, entrenatzaile, kirol agintari, jokalarik edo eta etorritako ikusleak iraintzea.
- g) Beharrezko titulazio edo baimenik gabe, epaile eta teknikariei dagozkien jarduerak burutzea.
- h) Arau-hauste arinak behin eta berriz urratzea.
- i) Dagozkien baimenik gabe, kirol jarduera, froga edo txapelketa, izendapen ofizialez antolatzea.
- j) Jarduera publiko zein pribatuak burutzea, hauek, federazio barruan betetzen duen lanarekin batera lantzea onartzen ez bada.
- k) Kirol konpetentziaren garapenak eskatzen duen duintasun edo begirunearen kontra argi eta garbi eginez, jarduera nabarmen edo publikoak burutzea.



- l) Kirol instalakuntzetako segurtasun eta higienerari dagozkien federazio arauak ez betetzea, bertara joan ohi den jendearentzako arriskutsua izan daitekeenean.
- m) Estatutu zein erregelamendu arauak eta, GMFk hartutako akordioak, ez betetzea.
- n) Segurtasun arauak eta arrisku-estaldura betetzen ez dituzten kirol jarduerak antolatzea; jarduerok burutzeak hirugarren batzuegan arriskurik sortarazten ez duenean.
- o) Atxikitze, nahitaezko luzapen, heziera edo antzeko eskubideei dagozkien Euskal Herriko kirolari buruzko 14/1998ko Legearen 67.artikuluari ageri den debekua ez betetzea.

58. ARTIKULUA. Arau-hauste arinak.

Ondorengoak, arau-hauste arin gisa hartuko dira:

- a) Epaile, teknikari, kirol agintari, jokalaria edo eta gerturatutako ikusleei modu ezegokian oharra egitea.
- b) Epaile eta gainontzeko kirol agintariak, bakoitzari dagozkion funtzioak burutzeko agindu eta instrukzioen aurrean, jokaera pasiboa izatea.
- c) GMFko diziplina batzordeko edo hauteskunde kideek dituzten funtzioak geldirik, utzita izatea, honek arau-hauste arina suposatzen duenean.
- d) Larri edo oso larri gisa onartu ez diren baina, argi eta garbi kirol arauen kontra doazen jarrerak.

59. ARTIKULUA. Isunak.

1. Aurreko artikuluetan adierazitako arauak ez betetzeagatik, arau-hauste batzordeak, ondorengo zigorrak ezarri ahalko ditu:

• Arau-hauste oso larriak:

- a) Urte bete baino gehiagoz, lizentzia kentzea, behin-betiko baja emateko arrazoia izan daitekeelarik.
- b) Lizentzia gabetzea.
- c) 6.000 € eta 60.000 € arteko kopuruko isuna ezartzea.
- d) Hiru partidu eta denbora osoko epe tartean, kiroldegia ixtea.
- e) Urte bete baino gehiagoz eta asko jota bost urtez, kargu eta funtzioen jardueran gaitasun-gabetzea.
- f) Kategoria maila jaiste.
- g) Joko, froga edo txapelketetatik betirako kanpo geratzea.
- h) Joko, froga edo txapelketetatik aldi baterako kanpo geratzea.
- i) Urte bete baino gehiagoz eta asko jota bost urteko epean, kirol instalakuntzetara sarrera debekatzea, hauetan froga edo txapelketarik daudenetan.
- j) Joko, froga edo txapelketen ospakizunak itxiak izatea.
- k) Puntu, partidu edo eta, jokaldi edo froga bat baino gehiagori dagozkien sailkapenerako postuak galtzea.

• Arau-hauste larriak:

- a) Hilabete baino gehiagoz eta asko jota urte batez, lizentzia kentzea.
- b) 600 € eta 6.000 € arteko kopuruko isuna ezartzea.
- c) Bi partidurainoko epean, kiroldegia ixtea.
- d) Urte beterrainoko epean kargu eta funtzioen jardueran, gaitasun-gabetzea.
- e) Joko, froga edo txapelketetatik betirako kanpo geratzea.
- f) Joko, froga edo txapelketetatik aldi baterako kanpo geratzea.
- g) Urte beterrainoko epean kirol instalakuntzetara sarrera debekatzea, hauetan froga edo txapelketarik daudenetan.
- h) Joko, froga edo txapelketen ospakizunak itxiak izatea.
- i) Puntu, partidu edo eta, jokaldi edo froga bati dagozkion sailkapenerako postuak galtzea.

j) Kargu-hartze pribatua.

k) Kargu-hartze publikoa.

• Arau-hauste arinak:

- a) Hilabeterainoko epean lizentzia kentzea.
- b) 600 €rainoko isuna.
- c) Joko, froga edo txapelketetatik behin-betiko kanporaketa.
- d) Joko, froga edo txapelketetatik aldi baterako kanporaketa.
- e) Kargu-hartze pribatua.
- f) Kargu-hartze publikoa.



2. Izun ekonomikoak, kirolari, teknikari eta epaileei euren lanagatik ordainsaririk edo konpentsaziorik hautematen zaienetan eta, pertsona juridikoei soilik jarri ahalko zaizkie.
3. Dagokion diziplinako espediente bitartez ezarritako zigorrak, lehen bailen exekutatuak izango dira, federazio, administrazio edo jurisdikzio organoek berariazko errekursoetatik ezagutu beharreko dauzkaten zuhurtasunezko zigorrak kaltetu gabe.

60. ARTIKULUA. Ardura zirkunstantzia aldatzaileak.

1. Diziplinazko erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak, aringarri zein astungarriak izan daitezke.
2. Ondokoak, zirkunstantzia aringarriak dira:
 - a) Arau-hauste burutzeari, aurrez nahikoa probokazio izatea.
 - b) Bat bateko damua.
3. Ondokoak, zirkunstantzia astungarriak dira:
 - a) Errepikapena.
 - b) Balioa.
4. Kirol diziplina boterea burutzean, GMFko diziplina batzordeak egoki deritzon mailako zigorra ezarri ahalko du; honetarako gertaeren nondik norakoa, ardura duen pertsonaren izaera, arau-haustearen ondorioak eta zirkunstantzia aringarri edo astungarrien konkurrentzia, kontuan hartuz.

61. ARTIKULUA. Ardura iraungitze zergatiak.

1. Kirol diziplinazko erantzukizuna, ondokoengatik desagertuko da:
 - a) Zigorra betetzeagatik.
 - b) Arau-haustea indargabetzeagatik.
 - c) Zigorra indargabetzeagatik.
 - d) Errunduntzat jotako edo zigortutako pertsonaren heriotzagatik.
 - e) Errunduntzat jotako edo zigortutako kirol erakundea desagertu izanagatik.
 - f) Zigorra barkatzeagatik.
2. Federatu baldintza galdu izana, kasu batzuetan oraindik ere ezarritako zigorraren eraginkortasunari eragin badiezaioke ere, ez da erantzukizun diziplina desagerraraztearen arrazoia izango.

62. ARTIKULUA. Arau hauste eta zigorren preskripzioa.

1. Arau-haustea hiru urteren buruan, urte betean edo eta hilabetean indargabetuko dira; arau-hauste oso larri, larri edo arinak direnaren arabera eta, indargabetze epea arau-haustea gertatu egunean bertan hasiz. Jarraipena duen jarduera baten ondoriozko arau-haustetan, kontaketa hasteko lehen eguna, jardueraren bukaera edo arau-haustea bukatu den asken ekintzarena izango da.
2. Indargabetze epea, zigor prozeduraren hasieraren berri emango den lehen momentuan etengo da. Prozedura honek hilabete baino gehiagoko epean, ardura duen pertsona edo erakundeari leporatu ezineko arrazoiengatik geldirik badirau, berriz dagokion epea pasatu beharko da.
3. Zigorrak hiru urteren buruan, urte betean edo eta hilabetean indargabetuko dira; arau-hauste oso larri, larri edo arinak direnaren arabera. Eta indargabetze epea zigorra ezartzeak indarra hartu zueneko egunaren hurrengo egunean hasiz, edo eta zigorra betetzen hasi ezker, hau betetzeari uzterakoan

63. ARTIKULUA. Diziplina prozedurak.

1. Erantzukizun diziplinen arazketa ohiko prozedura eta prozedura berezi bitartez burutuko da.
2. Lehenetsun eta sumario printzipioetan oinarritutako Prozedura berezia, funtsean, joko edo txapelketa arauak urratzeari ezarri ahalko zaio.

64. ARTIKULUA. Diziplina eta Zigor arduren konkurrentzia.

1. GMFko diziplina batzordeak, delitu izaera edo falta penala ager dezaketen gertaeren berri eman beharko dio Fiskaltza Ministerioari (honek edo interesatuak eskatuta). Kasu honetan diziplina batzordeak, dagokion epai ebazpena berrerori artean prozedura bertan behera uztea erabakiko du.
2. Aurrekoa horrela izan arren, diziplina batzordeak, zuhurtasunez, beharrezko neurriak hartu ahalko ditu.

65. ARTIKULUA. Diziplina eta Administrazio arduren konkurrentzia.

1. Gertaera batek, Euskal Herriko kirol 14/1998ko legeko XI. izenburupean araututako administrazioaren erantzukizunei eta diziplinazko erantzukizunei bide emango balieke, GMFko diziplina batzordeak, ofizioz edo interesdunak hala eskaturik, eskudun administrazio kontseiluari komunikatu beharko dio; guzti hau, diziplinazko prozeduraren izapidetze eragozpenik gabe.



2. Diziplina kontseiluak, administrazioaren erantzukizunei eskusiboki bide emango dien gertaeren berri izango balu, eskudun administrazio kontseiluari aurrekari berri emango die.

66. ARTIKULUA. Diziplina-prozedura.

1. Arau urratze oso larriak, larriak edo arinak eginez gero, GMFk diziplina espedientea jarriko du abian eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari zer leporatzen zaion, arau urratzearen behin-behineko kalifikazioa eta zigor proposamena. Interesdunak deskargua egin ahal izango du ebatziko duen batzordearen aurrean. Adostasunik ez badago, GMFren Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu ahal izango du errekurtsioa eta hark emango du behin betiko epaia. Erruztatuak kasu guztietan edukiko du ahoz azalpenak emateko eskubidea.

2. Aurreko puntuan aurreikusitako errekurtsioak aurkezteko epeak, arau-hauste arinen kasuan hamar lanegunekoa izango da; arau-hauste larrien kasuan hamabost lanegunekoa eta, hogeit hamar lanegunekoa berriz arau-hauste oso larrien kasuan; lanegunok, dagokion komunikatua jaso egunetik zenbatzen hasita.

3. Epe eta modu egokien barruan errekurritu ez diren zigorrak zein, errekurritu ezin direnak eta, egotzi diezaieketen epai ekintzez gain, lehen bailen exekutatu ahalko dira.

67. ARTIKULUA. Zehapen-erregistroa.

GMFko Diziplina Batzordeak, inposatutako zigor guztiak azalduko dituen Erregistro Liburua aurrera eramango du.

68. ARTIKULUA. Diziplina batzordearen jardute ahalmena.

GMFko Diziplina Batzordeak, federazio organo eta estamentuekiko autonomia eta independentziaz gozatu ahalko du, zeintzuk euren laguntza eskaini beharko duten hala eskatzen zaienetan.

V. TITULUA: HAUTESKUNDE-LEGEDIA

69. ARTIKULUA. Araua

1998ko ekainaren 11ko Euskadiko Kirolaren legeak eta 16/2006 Dekretuaren VII. Izenburuak ezarritakoa eta , lege horiek garatzeko onartzen diren dekretuek eta Estatutu hauek jasotakoa beteko du GMFren hauteskunde araudiak. Azken hori,ordea, derrigorrez, Batzar Nagusiak onartu beharko du.

70. ARTIKULUA. Hauteskunde Batzordearen Eraketa

1. GMFn, hiru kidek osatuko duten eta hauteskunde prozesua bultzatu zein bere garapen egokia zainduko duen Hauteskunde Batzordea egongo da.

2. Hauteskunde Batzordearen funtzioen jarduerak lau urteko iraupena izango du; Batzar Nagusiak kargutik kendu eta aipatu epea agortu aurretik beste Hauteskunde Batzorde berri bat izendatu ahalko duelarik.

71. ARTIKULUA. Hautaketa

1. Hauteskunde Batzordeko kideak zein ordezkioak, Federazioko kideen artean eta hauteskunde prozesuaren aurretik burutuko den Ohiko azken Bileran, Batzar Nagusiak aukeratu ditu.

2. Hauteskunde Batzordeko Lehendakari eta idazkari gisa, adinez nagusia eta gazteena direnek jardungo dute.

3. Hautagai aurkeztatutakoak, inondik inola ere, ezingo dira Hauteskunde Batzordeko kide izan. Izendatutako Hauteskunde Batzordekoren bat hautagai suertatuko balitz, horrek bere postua utzi eta horretarako aukeraturiko ordezkioak, ordezkatu beharko luke.

72. ARTIKULUA. Hauteskunde Prozesurako Deialdia eta Iraupena.

1. Batzar Nagusia aukeratu ostetik lau urte igarotakoan, Zuzendaritza Batzordeak, Hauteskunde Batzordea bilerara deituko du, hauteskunderi hasera eman diezaioten.

2. Hau posible izan ezean, Federazioko Batzar Nagusiko kide den eta gutxienez, bertako %5a ordezkatu duen edozein erakundek, deitu ahal izango du Hauteskunde Batzordea.

3. Dena den, Federazioko hauteskunde prozesua, olinpiar urteko Azaroaren 30a baino lehen bukatu beharko da.

73. ARTIKULUA. Egitekoak

1. Hauteskunde Batzordeak honako eginkizun hauek bete beharko ditu:



- a) Hauteskunde errolda eta hauteskunde egutegia onartu.
 - b) Aurkezten diren hautagaiak aldarrikatzea eta argitaratzea.
 - c) Hauteskunde-mahaia aukeratu.
 - d) Hautagaiak aldarrikatu.
 - e) Aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak eta eskaerak ebaztea, bai eta Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka jartzen diren errekursoak ere.
 - f) Legeak interpretatzea eta sor litezkeen lege hutsuneak osatzea.
 - g) Botoa emateko paper, kartazal, hautagaitzen inprimaki eta abar ofizialak onartzea.
2. Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka lehenik Hauteskunde Batzordearen aurrean egin ahal izango da eta ondoren Kirol Justiziako Euskadiko Batzordearen aurrean.

74. ARTIKULUA. Hauteskunde-mahaia

Hauteskunde Batzordeak, hautagai izango ez direnen artean egingo duen zozketa bitartez, hiru kidez osatua egongo den Hauteskunde mahaia izendatuko du; eta baita beste horrenbeste ordezkoko ere, beren Lehendakari eta Idazkaria adinez nagusia eta gazteena izango direlarik.

75. ARTIKULUA. Hauteskunde-mahaiaren Egitekoak

Hauteskunde mahaiak honako funtzioak beteko ditu:

- a) Botazioek garapen zuzena izan dezaten zaindu.
- b) Botoa ematen dutenen nortasuna eta hauen hautesle izaera egiaztatu.
- c) Igorritako botoen baliagarritasuna baieztatu.
- d) Behin ekitaldia bukatuta, botoak zenbatu.
- e) Boto ematearekin zerikusia duen beste edozer konpondu.

76. ARTIKULUA. Beste batzuk

Hauteskunde prozesuari dagozkion gainerako gaiak unean uneko hauteskunde prozesuetako Hauteskunde Araudien arabera arautuko dira; hori bai, GMFko Kirol Estamentuetako kide guztiak jakinaren gainean egotea eta federatuta egoteagatik haiek dauzkaten eskubideak bermatu egin beharko dira.

VI. TITULUA: EKONOMI ETA FINANTZA LEGEDIA

77. ARTIKULUA. Ondarea

1. GMFren ondarea, bere jabeagoari dagokion ondasunez osatua egongo da.
2. Ondorengoak, Federazioaren helegiteak dira:
 - a) Federatuen kuotak.
 - b) Erakunde publikoek eman diezazkioketen diru laguntzak.
 - c) Dohaintza, herentzia, ondare eta sariak.
 - d) Antolatu ohi dituen jarduera eta lehiaketek sortutako irabaziak.
 - e) Industria, merkataritza, profesional edo buruturiko zerbitzuen jardueratik eratorritako irabaziak.
 - f) Euren ondarearen fruituak eta ondarea besterentzetik edo zergapetzetik ateratzen dena, 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 138. artikuluan ezarritako baldintzetan.
 - g) Lortutako diru laguntza edo kredituak.
 - h) Bere jardueran jaso dezakeen beste edozer.

78. ARTIKULUA. Sarrerak

1. Federazioko sarrera guztiak, irabaziak barne eta, kirol agerraldi guztietan lorturiko sariez gain, industria, merkataritza, profesional edo zerbitzuetatik lorturikoak ere, bere helburu sozialaren garapenean, osoki aplikatuko dira.
2. GMFko kideek, inongo baldintzapean, ezingo dituzte irabaziak euren artean banatu.

79. ARTIKULUA. Bestelakoak

GMFk ondasun higiezinak zergapetu edo besterendu egin ditzake, dirua har dezake maileguan eta zorraren edo ondare parte alikuotaren titulu ordezkatzailleak jaulki ditzake, 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 139. artikuluan ezarritako kasuetan eta baldintzetan.



80. ARTIKULUA. Aurrekontu Ekonomikoa

1. GMFren ekonomia, Ohiko Batzar Nagusian adostutako aurrekontuari bat etorriko zaio. Zuzendaritza Batzordeak urtero, aurrekontuen proiektua Batzar Nagusiari aurkeztuko dio, honek onartu dezan.
2. Aurrekontuen proiektuak berdindu eta orekatuak izango dira. Gastuen onarpena eta ordainketen antolaketa, ofiziozko lehendakariari edo Zuzendaritza Batzordeko kideek hala eskatuz gero, bakoitzari dagokion eskumenari dagozkio.
3. Gauzatzea, diruzainari dagokio.
4. Ekonomia-urtealdiko likidazioan soberan geratutakoa, diru-sarrera gisa agertuko da hurrengo aurrekontuan.

81. ARTIKULUA. Balantze Ekonomikoa

1. Zuzendaritza Batzordeak, Ohiko Batzar Nagusiko balantzea aurkeztuko du. Balantzeak, urteko egoera erreala erakutsi beharko du. Ekonomi urtea, urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31ean bukatuko da.
2. Diruak, Federazioko izena duten banku edo aurrezki kutxetan sartuko dira.
3. Gastu txikiei aurre egiteko, Lehendakariak bere irizpide onenarekin adierazitako muga tartean dagoen batura, kutxetan mantendu ahal izango da.

82. ARTIKULUA Funts-Erabilera

Aipatu kontuen kargu dauden fondoan antolaketa, Lehendakariaren edo honek delegaturiko pertsonaren edo, diruzainaren sinadura bitartez baimendu beharko da.

83. ARTIKULUA. Ikuskaritza

GMF, Urriaren 9ko 265/1990eko Dekretua, 103. eta ondorengo artikuluetan jasotakoaren arabera, finantza zein kudeaketa ikuskaritzapean jarri beharko da.

VII. TITULUA: DOKUMENTAZIO ERREGIMENA

84. ARTIKULUA. Dokumentazioa

1. GMFk ondoko liburuak edukiko ditu egunean:
 - a) GMFri atxiki dauden Federazio Estamentuen liburuak; non bere izendapen, egoitza soziala eta berau osatzen dutenen izen zein deiturak azalduko diren, bai eta sartze eta baja-emate datak ere.
 - b) GMFko akten liburuak; non Batzar Nagusiak eta beste kide anitzeko organoak hartutako erabakiak jasoko diren.
 - c) Kontabilitate liburuak; non GMFko diru-sarrerak, gastuak eta aktibo zein pasiboak azalduko diren.
 - d) Hala badagokio, zor tituluen edo ondare parte alikuotaren erregistro liburuak.
2. Liburu hauek era mekanizatuan eraman ahal izango dira eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroak aurreikusitakoaren arabera bideratuko dira.

VIII. TITULUA: ESTATUTUEN ALDAKETAK

85. ARTIKULUA. Aldaketa

GMFko Estatutuak, Batzar Nagusiak hartutako akordioaren arabera soilik, aldatu ahal dira; bilera berezian, eman behar den aldaketa Gai Zerrendan aurrez sartuz eta, bilerako partaideen bi herenen gehiengoz.

IX. TITULUA: FEDERAZIOAREN DESAGERTZE ETA LIKIDAZIOA

86. ARTIKULUA. Desagertzea

GMF.a ondorengo kasuengatik desagertuko litzateke:

- a) Ezohiko Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean, bildutakoen bi herenen gehiengoaz.
- b) Horretarako erabaki judiziala ematen denean.
- c) Indarrean diren legeetan jasota dagoen beste edozein arrazoiengatik

87. ARTIKULUA. Likidazioa



1. Behin desagertzea gertatuta, GMFko Lehendakaria buru izango duen eta idazkaria zein diruzaina bertan izango diren, bost batzarkidez osatutako batzorde likidatzailearen bitartez, bere ondarea likidatuko da.
2. Likidazioa amaitutakoan, likidatzaileek azken balantzea egingo dute. Balantzea Batzar Nagusian aurkeztuko da, bertan onetsia izan dadin. Balantzearen emaitza positiboa bada Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzari bidaliko zaio, bertan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzko 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauko 5.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, foru organo horrek mendizaletasuna sustatzera bidera dezan.
3. Azkenik, desgitearen berri Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroari emango zaio, inskripzioan deuseztatu dezan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gipuzkoako Mendizale Federazioaren hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira. Erabiltzeko eta pixkanaka-pixkanaka normalizatzeko behar diren neurriak hartuko dira.

DONOSTIAN, 2007ko ekainaren 6a.

LEHENDAKARIA

JUAN PEDRO ITURBE

IDAZKARIA

ISABEL ZUZUBISCAR